II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Hasierako onespena ematea 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuari

Udalbatzak, 2019ko otsailaren 6ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udalaren 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuari eta 2019ko ekitaldiko aurrekontua betearazteko udal arauari.

Bat etorriz Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, aipatutako espediente hori 20 egun baliodunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Bat etorriz, halaber, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1. artikuluan xedatutakoarekin, ohartarazten da behin betiko onetsitzat joko direla udal honen 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratua eta 2019ko aurrekontua betearazteko udal araua, baldin eta epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Bastida, 2019ko otsailaren 7a

Alkatea
LAURA PÉREZ BORINAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.15 06:41:46 Z